

# **Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena**

## ***(Ahoskerak axola du)***

Miren Lourdes Oñederra, Agurtzane Elordui, Irantzu Epelde,  
Pilartxo Etxeberria, Oroitz Jauregi eta Jasone Salaberria

### **1. Euskara Batuaren historiaren inguruan**

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, industriaren gorakadarekin besteak beste, aldakuntza giro handia sortu zen Euskal Herrian: immigrazioa hastearekin batera, politika eta kultura arloko mugimendu eta ekinbide berriak sortu ziren, horietatik bat aipatzeko, gau eskolak eta ikastolak jaiotzea, hauek zuten testu premia gorriarekin. Horrez gain, idazleek, kazetariak, kantariak, bertsolariak eta bestek ahalik eta jende multzorik zabalenera iristeko nahia zuten, euskara gizarte hiritarrean txertatzeko eta kultura esparruetan hedatzeko. Euskal Herriari nazio estatusa eman nahia indartzeak ere eragin handia izan bide zuen.

Aldakuntza giro honetan batuaren aitzindari izan zirenen artean, bi izen behintzat nahitaez aipatu beharrekoak dira: Aresti eta Txillardegia. Lehena, 1960ko *Maldan behera* poeman artean sortzeko eta arautzeko zegoen euskara batu-antzekoa erabili zuelako; bigarrena, berriz, Baionan 1964an egin zen biltzarrerako proposamen zehatzak biltzen zituen txostena apailatu zuelako. Bi izenokin batera, Luis Villasante eta Koldo Mitxelena izango dira, ziurrenik, euskara batuaren lehen urrats haietan pisu handiena izan zuten euskalariak. Euskaltzaindiak bere jaiotzaren berrogeita hamargarren urteurrenaren karietara egin beharreko ospakizunetarako euskara batuaren batasuna finkatzeko txostena egin zezan agindu zion Mitxelenari, eta honek bere gain hartu zuen halako ardura eta erantzukizun handia. Mitxelenak 1968an Arantzazun izan zen batzarrerako prestatu zuen lanak bost atal zituen: ortografia, euskal hitz eta aldaera lexiko zaharrak, hitz berriak, morfologia eta sintaxia.

Arantzazuko 1968ko batzarraren ondotik, ortografia alorreko erabakiak etorri ziren 1971n, aditz laguntzailearen ingurukoak bi urte geroago, eta aditz trinkoari buruzkoak 1977an. Hurrengo urtean, 1978an, Arantzazun hartutako erabakiak betetzen ziren edo ez ikusteko hamar urteko epea bukatzen zela eta, beste biltzar bat egin zen Bergaran, eta euskara batua idazle eta irakasle gehienek onartua zutela ikusi zen. Zenbait urte geroago, 1994an Leioan egindako batzarrean, *Arauk* izeneko bilduma sortzea erabaki zen, Euskaltzaindiak hartutako erabakiak bildu eta jendarteratzeko. Garaitsu hartan (1994an lehenengo, 1998an biribilduta) etorri zen, lehenengo aldiz, ahoskeraren inguruko EBAZ (Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua) araua.

Batuaren sorreraren garaiak desberdin ziren oso oraingoarekin konparatuta. Arestian aipatu bezala, beharra handiagoa zen, gizartearen gogoia ere oraingoa baino sutuago

euskara zaintzearen aldekoa. Ahoskera estandarizatzeko garaiak, beraz, hotzago harrapatu gintuen salbuespenak salbuespen, eta, gainera, ahoskera berez da galtzaile hizkuntzaren beste atalen ondoan. Gramatika eta hiztegia idatziz ere adieraz daitezke, eta sarri balidurike idatzia dela horien gauzatze nagusia, nahiz uste ustela den hori. Ahoskera, bestalde, idatziz mozorrotzeko aukerarik ez dago, eta gauza ezaguna da jende ikasiak (arauemaileak barne) idatziari eman izan diola lehentasuna. Hori dela eta, Milroy eta Milroy-ri hitzak ostuta (2012, 55), ahozkoa egintzat eman ohi da.

Ahoskera ez da normalki irakasleen ebaluazio eta prestakuntza-curriculumean agertzen (Rindal, 2014). Irakaskuntzan, oro har, ez zaio leku handirik ematen ahoskerari. Irakasleek ez dute horretarako heziketarik izaten; oro har, ahoskera hizkuntzaren gainerako atalak baino kontrolagaitzagoa gertatzen zaie. Ikasleentzat, baina, berebiziko garrantzia du, oso inportantea delako bere hiztun-ziurtasunerako. Ahoskera da, hain zuzen, hiztun baten hizkuntz gaitasunaz hartzen den lehen inpresioa.

1968ko txostenean, berariaz nabarmendu zuen Euskaltzaindiak (1968, 203) estandartzea literatura euskarari buruz eginga zela, eta honen arrakasta edo porrota irakasleen eta idazleen esku geldituko zela:

Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenek batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago.

Euskaltzaindiak 1993 bitartean ez zuen ahoskera, gai zentral moduan, langai izan. Urte horretan, hizkuntzalari talde bat lanean jarrarazi zuen, lehenengo aldiz, gaiaren inguruan. Lehen txostenaren idatzaldi bat 1994an aurkeztu zen (Oñederra 1994a, b), eta, ondotik, hizkuntzalariz eta irakaslez osatutako talde batek lanean jarraitu zuen, 1996 eta 1998 bitartean. 1998 bukaera aldera argitaratu zen, azkenik, *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*. Geroztik, ahoskeraren arautze lanari dagokionez, eten bat gertatu zen, 2013. urtea bitarte (lehenengo haren 20 urtera). Urte horretan, Ahoskera Batzorde berri bat sortu zuen Euskaltzaindiak.

Batu idatzirako arauak kaleratu zirenetik ahozkorako ezer azaldu arte, denbora tarte luzea izan zen (1968-1998). Urte horietan ez zen idatzi bakarrik, gehienak behintzat hizketan aritu ziren batez ere, ahal izan zuten bezala, ahal bezain ongi beteaz hizkera batuari zegokiona, batua bera noiz edo nork egin behar zuen inork argitu ez bazuen ere (cf. Euskaltzaindia, 2004). Oro har eta ahozkoari zegokiola, erabiltzailea umezurtz zegoen euskara berriaren forma idatziaren aurrean.

1998ko araua atera zen, indar handirik gabe, edo guztien ulermenik gabe behintzat, gero eta ozenago baitira arau estuagoak eskatzen dituzten ahotsak. Horren aurrean, Batzorde honen ustez honakoa genuke erronka: 1998koa komunikazioaren aldetik

garatu eta praktikara eramateko moldeak bilatu, araugintza irakaskuntzaren praktikarekin lotuz, besteak beste.

Orain, (ahoskeraren arautzearen XXI. mendeko aro honetan) dagokigu euskara batua euskalkiekin bateratzea, ez aldamenean edo gainean geratzea. Hori gertatuko da (ari da gertatzen) gauzak bere horretan utzita: batua ahal den bezala «irakurri» eta etxekoa (dutenek) atera bezala egin, ongi iruditzen zaionean bakoitzari. Ez da gauza erraza bateratze hori berariaz egitea. Ezinezkoa ere gertatuko da, elkar hartzen ez badugu estandartze bilakabideko eragile guztiok: arauemaile, irakasle, ikasle, esatari eta gainerako hizlariak. Denok izan behar dugu garbi (a) ahoskera estandartzeak neurri batean euskalkiak bateratzea dakarrela, baina (b) ahozkoaren aldagarritasuna idatziarena baino askoz handiagoa dela eta ahozko estandarrak bat baino gehiago izango direla: euskalki koloreak izango dituela batuaren ahoskerak. Hau dagoeneko gertatzen da gehiago edo gutxiago, modu ez-erregularrean, bat-batekoan, egoeraren, hiztunen eta bestelako faktoreen arabera.

## 2. Ahoskera estandartzearen beharrik?

### 2.1. Estandarra

Ahoskera estandartzeaz ari garenean, aldaera estandartzat zer hartzen dugun argitzea komeni da; *estandarra* terminoak, berez nahikoa termino lausoa edo labainkorra dena (Couplan & Kristiansen, 2011, 11), adiera desberdinak hartu baititu euskararen kasuan ere.<sup>1</sup>

Auer-ek (2005, 8) jasotzen du estandarraren funtzionaltasuna: (1) eremu zabal baten hizkera komuna da (eremu horren barruan aldaera geografikoak ere hartzen dituena), (2) eskolan irakatsitako eta eremu publikoetan erabiltzeko aldaera funtzionala da, bereziki idatzirako eta testuinguru formalean erabiltzekoa, (3) aldaera kodetua da, betiere kodetze-lan instituzional bat ez badago ere. Auer-ek bildutako ezaugarriok maila handiagoan edo txikiagoan betetzen dira hizkuntzetan zehar: estandartasuna, beraz, mailakatu daitekeen nozio soziolinguistikoa dela esan daiteke (Auer & Spiekerman, 2011, 164).

---

<sup>1</sup> Gaminde et al.ek (2014) euskara batua eta estandarra bereiztea proposatzen dute, eta haien lanean proposamenak egiteko orduan 'euskara estandarraz' ari direla diote, euskara batuari buruzko proposamenak Euskaltzaindiari dagozkiola argudiatzen dutelarik. Guk, berriz, ez dugu uste euskara batuaren eta euskara estandarraren artean bereizkuntza ontologikorik dagoenik. Euskara batua eremu geografiko jakin bati ez dagokion aldaeratzat har daiteke gaur egun. Batua testuinguru zainduetan ez ezik, beste hainbat testuingurutan ere jazo daiteke (familiar, lagunartean, etab.) eta testuinguru horietan guztietan erabiltzeko erregistroak garatzen ari da (lagunartekoa barne). Baina hori batuaren (edo estandarraren) garapen soziolinguistikoa da. Edozein estandar, erabilia den neurrian, aldatuz joango da diakronikoki bai ardatz geografikoan, bai ardatz estilistikoan. *Batua* da, beraz, hemen estandarrari eman zaion izena.

Gradualtasun hori ondo lotzen da, Roeland van Hout (2014) hizkuntzalariak eskaintzen digun estandarren ikuspegiarekin. Bere hitzak itzuliaz: hizkuntza estandar prototipikoa bizia da (*vital*); alegia, elkarteko gehienek erabiltzen dute formaltasuna eta neutrotasuna dagokien egoera guztietan eta estandarra da erabili egiten den neurrian.

Aurreko atalean esan bezala, estandarren erabilera ez da idatzia bakarrik: oso maiz aldaera estandar hori ahoskatu egin behar da. Testuinguru horretan kokatu behar dira EBAZ arauak eta hemendik aurrerako estandartzearen inguruko gure lana. Ahozko estandarren ezaugarritze honetan garrantzitsu iruditzen zaigu hurrengo bi ideiatatik abiatzea:

a) Estandarrak ez du zertan bat eta bakarra izan. Estandarren uniformetasunaren auziak eztabaida oparoa izan du soziolinguistikan. Milroy & Milroyk (2012 [1985]) aldagaiztat hartzen dute estandarra eta erabateko uniformetasun hori kritikatzeko du Milroyk (2006, 133) ere, “estandarren ideologia” salatzen duenean. Beste soziolinguista batzuek, berriz, estandarren kontzeptu malgua defendatzen dute eta azpiestandar geografiko (Grondelaers & van Hout, 2011) zein funtzionalak (Auer, 2005, 2011) bereiz daitezkeela diote. Gure proposamenak bigarren ikusmolde horrekin egiten du bat. Euskarari buruzko lanetan ere, bereziki aintzat hartzen ditugu batuari izaera aldakorra aitortzen diotenak, ardatz geografiko (Zuazo, 2000, 2005; Camino, 2005) zein funtzionalean (Elordui & Zabala, 2009).

b) Estandarraren kontzeptualizazioan bereziki saihestu behar dugu Milroy & Milroy-k (2012 [1985]) estandarren ideologiaren gehiegikerien artean ematen dutena: estandarra garbia, zuzena (edo aukera zuzen bakarra) izatearekin lotzea; euskararen kasuan sarritan “jatorra” izan ohi da aipatzen dena. Ona da euskara batuak prestigioa izatea eta nahi genuke ahozkoa ere prestigiodun gertatzea, baina euskararen gainerako aldaera geografiko eta funtzionalei prestigiorik kendu gabe. Estandar/ez-estandarren inguruko gizarte-ebaluazioaz diharduten hainbat ikerlarirekin (besteak beste, Coupland, 2009; Kristiansen, 2009; Kristiansen & Coupland, 2011) bat egiten dugu soziolinguistika bariationistak ‘estandarra’ren eta ‘prestigio’aren artean sortu duen lotura kaltegarri eta sinplista kritikatzeko dutenean.

Autore horiek agerian utzi dute prestigioaren auzian beste aldagai ideologiko asko hartu behar ditugula gaur egun aintzat: besteak beste *dinamikotasuna* (*dynamism*) aldarrikatzen du Kristiansen-ek (2009) bereziki kontuan hartzeko parametroen artean. Soziologiaren alorrean Modernitate Berantiarra (‘Late Modernity’: Giddens, 1991) deitu den honetan aldaera ez-estandarrek bereganatu dute *dinamikotasunarekin* loturiko prestigio hori. Europa mailako hainbat hizkuntzaren inguruko azterketek (ik., bereziki, Kristiansen & Coupland, 2011) agerian uzten dute guneanitzeko unibertso ideologiko bat dugula egun estandarren eta ez-estandarren gizarte-ebaluazioan eta, erabilera-eremuaren eta funtzioaren arabera, estandarrak ala dialektoek hartzen dute prestigio-

mailan lehenetasuna. Antzeko ondorioetara eramaten gaituzte euskara batuarekiko eta euskalkiekiko jarreraren inguruan egin diren ikerketek ere (Amorrortu, 2012; Bereziartua, 2014; Lantto 2015).

## 2.2. Zenbateraino behar da ahoskeraren estandartzea?

Lehenengo galdera da euskarak ahozkoan aldaera formalik behar duen. Euskaltzaindiak 1993an abiatu zuen ibilbideak galdera horri baiezkoa *de facto* eman ziolakoan, horren ahoskera (ahoskera *zaindua*<sup>2</sup>) egokia nolakoa izango zen aztertu behar izan zen.

Baten bati bestela irudituko balitzaio ere, beste hizkuntzetako ahoskeren berariazko estandartzeak gertatu dira, baita akademiarik ez duten hizkuntzetan ere. Halako egitekoa bete zuten ingelesezko ahoskera-hiztegiek (Buchanan, 1757; Sheridan, 1780, 1791, apud Tiekens-Boon van Ostade 2012, 41): “get rid of accent” (‘libra zaitez azentutik’) aholkua ematen omen zuten. Inguruko Akademiak ere gurea baino askoz lehenagokoak dira eta horregatik irudi lezake gauzak libreago direla (Italierarena 1582, Frantsesarena 1635, Espainolarena 1713, Suedierarena 1786).

Beste inolako hizkuntzen menpe ez dauden hizkuntza horiek errazago bizi litezke estandartze gabe, ahoskeraren estandartze gabe bederen (ikus honen azpiko (c) paragrafoa). Haatik, uste dugu euskarak ahoskeraren berariazko estandartzea behar duela. Hona behar horren zenbait eragile:

- a) Euskal aldaera guztietako hiztunek orain hedabide komunak dituzte. Komunikabideen presentzia gero eta handiago da, produkzio libre gero eta ugariagoarekin. Informazio teknologia berriei esker esatari profesionalek ez ezik, medioetako erabiltzaile-sortzaile arruntak ere, ahozko estandar baten beharra du: buruan ditugu testuinguru akademikoetan euskal neska-mutilek egunero sortzen dituzten *booktrailerrak* eta eskolarako bideoak, esaterako.
- b) Gainera, unibertsitatean eta administrazioan erabiltzen denez, esparru horietako erabilera zenbaiterako behintzat egokiagoa dirudi, lekuan lekuko euskalkia baino, estandarrak dakarren hizkera neutro eta formalagoa.
- c) Euskara hizkuntza gutxitua izateak areagotu egiten du ahoskera arautzearen beharra. Hizkuntza osasuntsu indartsu batek berez (Milroy, 1994, 21) gara dezake aldagarritasun funtzionala (hizkera desberdinak, egiteko desberdinetarako), baina euskarari mende luzeetan zehar beste hizkuntza batzuek

---

<sup>2</sup> Mitxelenaren proposamena da *zaindu* terminoa. Labur esanda ahoskera zaindua litzateke hizkera formal edo jasoari legokiokeena, hain zuzen ere hizkera horretan hiztunak arreta ematen diolako (beti bezala) edukiari, baina halaber eduki hori adierazten duen forma fonetiko zaindu egiten du (gainerako hizkera mailetan ez bezala; hortik gainerako horiek –formari dagokionez– *arduragabetzat* hartu ahal izatea).

bete diote estandarrari legokiokeen eremua. Ez zegoen, beraz, ohitura kolektibo bateraturik, ez dago hizkera zaindurako eredu sendorik, ezta euskalkietan ere.<sup>3</sup>

d) Bi hizkuntzaren menpean da, gainera, hizkuntza gutxitu: horrek ere arautze batuaren beharra azpimarratzen du, joera exonormatiboak euskararen zatiketa indartzen duelako. Ezin ahaztu dugu, gainera, frantsesa eta gaztelania araututa daudela. Alegia, estandarturik daude bai kodetzearen aldetik, bai aldaeren banaketa funtzionalaren antolaketaren aldetik (frantsesa gaztelania baino areago).

e) Hiztunen elebitasuna. Ez dago honezkero hiztun elebakarrik. Bestela esan, hiztun bakar bat ez dago beste hizkuntza baten eredu fonologikorik gabea (euskaraz-kanpoko beste eredu horren nagusitasun erlatiboa hiztunaren biografia linguistikoaren zenbait eragileren arabera delarik): zaindurako erreferentzia hizkuntzaren barrenean ematearen garrantzia azpimarratzen du horrek.

f) Bestalde, idatzian ere berriki estandartua da. Horrek indartu egiten du *spelling pronunciation* edo letren ahoskera deitzen denaren arriskua: hiztunentzat idatzia forma berria izanik, letrak berdintzea erabat fonemekin. Ahoskera berri bat egokitzen zaio horrela hizkera berriari. Horretarako, nahigabe eta besterik ezean, erdarara jotzen da eredu foniko berri horren bila.<sup>4</sup>

g) Aldagarritasun soziologiko eta estilistiko mugatua: euskaradunok gizarte txikia osatzen dugu, desberdintasun sozial mugatukoa. Bestela ere hizkuntzak ez du oraintsu arte estilo formalen beharrik izan (ik. goragoko c).

### 2.3. Oraingo egoera

1998az geroztik dugun EBAZ araua (ikus Euskaltzaindia 1998) ezagutzen duten hiztun gehienak erabiltzaile bereziak dira: irakasle, ikasle, esatariak. Bai kopuruaren aldetik, bai beren eraginkortasunagatik, talde garrantzitsua badira ere euskal hiztunen artean, esan liteke Batuaren gainerako atalak baino ezezagunagoa dela ahoskerarena. “Atarikoak” atala eta aldagarritasunaz 1998ko arauetan agertzen diren iradokizun zatikakoak dira errazen ahaztu direnak (ikus 3.1.f). Horrekin lotu daiteke, EBAZ arauaren erabilera kaotiko samarraren barruan, ahoskera desberdinen egokitze estilistikoa izatea hutsik handiena. Arauak hiztun batzuek bakarrik betetzea ez da berez txarra (ikus 3.1.e); kezkarriena da erabileraren banaketa nolakoa den.

Oro har ez da ohikoa euskararen egokitze funtzionala: Batua (EBAZ arauak betez edo ez) edozein egoeratan erabiltzen dutenen beste muturrean agertzen zaizkigu batua, egoki

---

<sup>3</sup> Elizak erabilitako aldaera zenbait lirateke horri gehien hurbilduko litzaizkiokeenak.

<sup>4</sup> Hau aspaldi, Batua berria zenean gertatu bide zen; baina orduan sortutako aukera egonkortsu eta eredu gisa sendotu dela esan daiteke. Frantsesak eragin txikiagoa izan dezake gaztelaniak baino, ortografia fonetikoagoa duelako bigarrenak. Halere azentu kontuetan eredu aldaketa nabarmena da bi kasuetan.

litekeenean ere, erabiltzen ez duten hiztunak. Azken mota honetakoak euskalkiren bat menperatzen duten euskaldun zaharrak izan ohi dira. Beren jokaeraren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Batzuek ez dakite batua erabiltzen, beste batzuek ez dute nahi, edo ez dute egoera desberdinetan hizkera desberdina erabiltzeko beharrik sumatzen, ezta batua sendotzekoa ere. Bigarren azpitalde honetan nabarmen dira batuaren aldeko ahaleginak bizi izan ez zituzten gazteak, baina badira, euskalkien babesaren argudioaz, horren alde egiten duten intelektualak ere. Ziurrenik badu honek Europa osoan gertatzen ari den bernakularizazio prozesuarekin zerikusia (Coupland, 2009 ; Coupland & Kristiansen, 2011).<sup>5</sup>

Arau gehiago eskatzen duenik ere bada zenbait alorretan (Alberdi, 2014, 12). Ahoskera Batzordean ez dugu uste arau gehiago eman behar denik. Dagoena garatzea proposatzen dugu, zehaztuz, esplizitu eginaz agian ilun litekeena: arauen kodetzea landu behar litzateke, edo kodetze hori zer den garbi azaldu, betiere ahozkoaren aldagarritasunari behar duen lehentasuna emanaz.

Oraingo EBAZ arauaren erabilera desberdin eta aldizka kaotikoa ez da behar bezala konponduko arauen ezagutza nola edo hala hedatuz, ezta gogorrago betearaziz edo arauak ugarituz eta zailduz. Ahoskera estandartuko badugu, oso aintzat hartu beharko ditugu idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasun eta loturak, estandartzeak zer esan nahi duen eta hizketaren aldagarritasuna.

#### **2.4. Zer da gure ustez ahoskera estandartzea**

Hizkuntza gutxitua izanik, erabilera esparru nahikorik izan ez duelako, euskararen hizkera formalik ezak hizkera-mailen arteko egiturarik eza dakar. Horrek hizkuntzaren antolaketa estilistikorik eza esan nahi du. Alegia, ez da garatu hizkuntzaren historian zehar hizkuntza indartsuagoek izan duten esparru soziolinguistiko mailakaturia, ez behintzat gizarte osoan. Testuinguru horretan ulertu behar dira EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna: hizkuntzak historian zehar izan ez duen aldagarritasuna, neurri batean behintzat, berariaz antolatu beharreko zerbait da euskararen kasuan. Hizkuntzalariok badakigu hori ez dela erraza eta ezin dela erabat kanpotik programatu. Kontu handiz egin beharrekoa da eta ez genuke saiatu behar erabat lotzen (ez ontasunaren, ez jatortasunaren, ez beste ezeren izenean) hizkuntzaren berezko garapena izan behar lukeena.

Euskararen estandartzeak, leku guztietako hiztunentzako aldaera komuna finkatzeaz gainera, eskatzen digu hizkuntzaren unibertso osoa egituratzea. Beraz, aldaera estandar abstraktuaz gainerako hizkerek ere presente egon behar dute estandartze-egitasmoan.

---

<sup>5</sup> Euskararen kasuan ere zantzu argiak aurkitzen ditu Elorduik (2015). Kristiansen-ek joera nagusi biren inguruan hitz egiten digu Europako hizkuntzez diharduela: *desestandarizazioa* eta *demotizazio* prozesuak. Bietan estandarren eta dialektoen arteko banaketa ideologiko berriak aurkitzen ditu (Kristiansen, 2009; Kristiansen and Coupland, 2011, 27).

Estilo zaindu eta arduragabeek, lekuko hizkerek, talde sozial ezberdinenek, gazteago eta zaharragoenak bakoitzak bere egitekoa izan behar du egitura egitasmo horretan:

[A] complete language has its formal and informal styles, its regional accents, and its class or occupational jargons, which do not destroy its unity so long as they are clearly diversified in function and show a reasonable degree of solidarity with one another. (Haugen, 1966, 932).

Nolabait esan, euskararen ahoskera estandartzearen helburu litzateke hizkuntza normaltzea ahozko erabileran. Horretarako, unibertso osoa antolatu behar da, ez soilik estandarraren ahoskera. Atalaren lehen paragrafoan aipatu EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna ardatz estilistikoan (*dittu/ditu, etxia/etxea*) eta dialektologikoan<sup>6</sup> (*mina/miña; esan zun/esantzun*) gertatzen dira hurrenez hurren.

Aldagarritasuna berezkoa du ahozkoak, besteak beste alor dialektalean, eta ez du ahoskera bakarrik harrapatzen noski: *dan/den* bezalakoak elkarren segidan gerta daitezke, Batuan aritu nahi duenaren hizketan ere (eta *handi/haundi, niretza/neretza, euskara/euskera, baina/baino, dut/det*); baina ahoskera da dudarik gabe hiztunaren kontrolpetik errazen askatzen dena: *iruittuko zaizue, úrrengoako komponduko dewlè, esaterako, egoera formal batean jasoak dira.*

Batzordeak ez du euskalki guztietako hiztunentzako ahoskera bakarra proposatzen: hizkera estandarra erabili behar denerako gutxieneko gida bat baizik (*gida* eta *gutxieneko*, biak azpimarraturik). Ideia hori izan zen gaizki ulertu den EBAZaren funtsa. Ikuspuntu honetatik doinu eta azentuek behar dute libreen, horiek direlarik kontsonante eta bokalen ahoskeren baldintzatzaile neurri handi batean. Itzuliko gara berriz ere prosodia kontuetara 4. atalean.

Malgutasun estilistikoa ere aintzat hartu behar da. Batzordeak ez du edozein egoeratarako ahoskera bakarra proposatzen. Ondo daude *ditut* [ditut] eta *dittut* [dicut], *etxea* eta *etxia...* zein bere erabilera esparruan. Euskalkiekin bezala, mailen artean ere aldagarritasuna bizia da oso ahozkoan eta ez da ahoskera kontua bakarrik: *dagon/dagoen* bezalako desberdintasun morfologikoa segundo gutxiren buruan egin zuen mikrofono aurrean hizlari batek. Izan ere hauxe da praktikan aldagarritasun ardatz zailena: hizkera-mailen berezko desberdintasun dinamikoaz eta irristakorraz gain, orain arteko euskararen aldagarritasun estilistiko murrizagatik.

Euskalkien eta estiloen aldagarritasun-ardatz bi horietan oinarrituta, hizkuntza ahulduaren normaltasunerako indartu behar litzatekeena lortzeko, dinamika horien alde jarri behar dute bai euskara txikitatik dakitenek, bai heldutan ikasi dutenek ere.

Taking care of the weakness of a threatened language should go hand in hand with giving way to its functionally necessary resources, such as an orderly varied pronunciation. (Milroy 1994:20).

---

<sup>6</sup> Euskalkien artekoa ez da aldagarritasun sozio-fonologiko bakarra, noski. Gazte eta zaharren arteko desberdintasunak, euskaldun zahar eta berrien artekoak edo herritar klase desberdinen artekoak lirerateke bete-betean aldagarritasun soziofonologikoaren erakusle, baina lan honetan arauen analisisirako ez dira erabiltzen, nahiz zeharka eta tarteka aipatzen diren horietako batzuk lanaren beste leku batzuetan.



Euskaldun zaharrek estandartzen ikasi beharko dute (alegia beren euskalkiko aukeretatik ateratzen eta batua erabiltzen hala dagokionean). Euskaldun berriek desestandartzen ikasi beharko dute (alegia ikasi duten euskara batua euskalkian urtzen gehiago edo gutxiago egokieraren arabera). Zehazki ahoskerari dagokionez, bokal arteko  $r$  jaten duenak etxeokoen ( $ari > ai$ ), ohitu beharko du halakorik ez egiten eskolan aurkezpen bat egitean. Idazten diren  $r$  guztiak ahoskatzen dituenak beti, ikasi beharko du bokalarteko batzuk behintzat jaten tabernako elkarrizketetan. Mailak bereiz daitezke halakoetan:  $r$  bat ere ez jattetik (mikrofono aurrean, irakurtzean, etab.); agian ez hain estu, batzuk bakarrik isiltzera azentuaren eta arretaren edo ohituraren arabera (aurkezpen libreagoan); denak kentzeraino (etxeok sukaldean). Mailakatze zehatzaz ez genuke sobera arduratu behar, hori berez etorriko baita, malgutasunaren eta aldagarritasunaren norabidea behar bezala bereganatzen baditu erabiltzaileak.

## 2.5. Euskaldun berriak

*Euskaldun berria* oso termino zabala da, bere baitan errealitate oso plurala hartzen duena. Lan honetan, deitura hobeagorik ezean, termino hori erabiliko dugu euskara umetan (guztiz) bereganatu ez dutenak izendatzeko.

Euskara batua sortu zenean, are euskara ofizialdu zenean lurralde batzuetan, euskaldun berriak ugaritu ziren. Egun, oraingo belaunaldietan, euskaldun berriak asko dira: Hegoaldeko hiztunen erdia baino gehiago ziren 2011rako 16-24 adinekoen artean. 2013ko azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, adin tarte horretako hiztunen artean %52 ziren euskaldun berri Autonomia Erkidegoan, eta %54 Nafarroan. Iparraldeko datuen arabera, %38,6 ziren euskaldun berri adin tarte hori zuten hiztunen artean (Eusko Jaurlaritzak, 2013). Euskara Batua izan da horietako gehien euskalkia.

Euskaldun berriekin batera, Euskara Batua hots bihurtzerakoan, ezjakintasunagatik edo bestela, beren jatorrizko euskalkia erabili ez zuten hiztunak ere asko izan ziren, eta dira. Halako hiztunen ahoskerak izan dira maiz Euskara Batuaren ahoskeratzat hartu direnak: horiek egituratu dute euskara batuaren fonologiatzat hartu ohi den eredu askotan. Beren euskalkia erabiltzen ez zutenen artean asko irakasle ziren edo dira lanbidez, guraso eta aitona-amona izateaz edo direnez gain. Beraz, eredu transmititzaile ere izan dira.

Irakaskuntzarekin jarraituz, gurearen moduko egoera soziolinguistikoetan, hizkuntza idatziaren estandartzea erlatiboki berria denean, hiztunek beraien hizkera egoera berrira moldatzeko idatzizkoa irakurtzea izan ohi da ohikoena. Moldaketa horretan, euskalkiari edo dialektoari dagozkion bilakabide eta erregelak saihestu egiten dira nagusiki. Egun, irakasle askok idatzizkoa irakurriz jarraitzen dute, 1960. hamarkadan Euskara Batua sortu berri zenean lehenengo irakasleek egin zuten gisara.

Bereziki azpimarragarria da irakasleek duten garrantzia estandaritze orekatua lortzeko bidean. Euskara bigarren hizkuntza duten ikasle gehienek ez dute harreman zuzenik izango euskalkien ahoskerarekin, irakasleek eskolan ezaugarri dialektalak saihestu egiten badituzte. Arazoa zaildu egiten zaigu gaurko hizkuntz irakasle asko euskaldun berriak direla kontuan hartzen baldin badugu.

Euskal ahoskeraren estandarizazio prozesuaren helburuetako bat hiztun guztiek aldakortasun estilistikorako bidea ezagut dezaten izanik, gai izan behar genuke ahoskera zaindurako arauak lagunarteko mailetan euskalkietako formekin nola harmonizatu irakasteko. Euskaldun berriek besteongandik, irakasleengandik gutxienez, ikasi behar lukete aldakortasuna. Euskaldun berriari, euskalkirik etxetik ez dakarrenari, ez litzaioke estandar zurrun maila-bakarreko bat eman behar soilik. Horrek lekarke euskaradun berria hiztun oso ez izatea, estilo bakarreko hitzuna bailitzateke. Eskolatik kanpoko erabileran ondorio larriak etor litezke eta, ziurrenik, izan ditu honezkero euskararen kasuan (Soziolinguistika Klusterra, 2012) komunikazio-egoeretarako egokitze estrategietan baliabide linguistiko eta estilistikorik gabe uzten baitu hitzuna (Giles et al., 1991).

Gainera, hiztunen arteko euskaldun berrien kopuru erlatiboak direnak izanik aldagarritasun disfuntzionalak sortzeko arrisku handia dago. Esan nahi baita, euskaldun berriek erregistro maila zaindua ikasten badute soilik beste aukeren berririk gabe, maila zaindu hori hizkuntzaren egokiera guzti-guztietarako erabiliko dutela, eta egoera horrek hizkuntzaren ahoskera unibertsoa desitxuratuko duela.<sup>7</sup>

Euskaldun berriei buruzkoa osatze aldera, aipatu behar da hizkuntzaren une historiko honetan, neurri batean edo bestean denok garelako euskaldun berri hizkuntz erabilera esparruren batean, hizkuntza bera ari garelako erabiltzen lehen aldiz zenbait eduki adierazteko. Euskararen zenbait egoera, funtzio eta estilo aski berriak direnez, euskara ere berria da eremu horietan. Orain ari da sortzen egokiera berri horietarako hizkera. Hain zuzen ere, hizkuntzaren alor berri horiek dira ahoskera zaindua erabiltzeko aukera gehien dutenak: zientzia hizkera eta berau erabiltzeko egokierak, hala nola hitzaldiak, eskolak, eztabaida zientifikoak, eta abar. Esparru horiei dagokie, halaber, mailegu berri askoren erabilera, hizkuntzan ahoskera berritasunak sartzeko bide izan ohi dena, adibidez, *genoma* hitza, zein *semasiologia*.<sup>8</sup>

Gauzak horrela, ahoskera araupetzeak euskaldun berriak kontuan hartzea ekarri du eta euskaldun berriek eta hizkuntzaren erabilera berriek ahoskera kontuan hartzea.

---

<sup>7</sup> Gauza bera esan daiteke kontrako egoeraz ere, alegia maila zainduenetan ere etxeko hizkera erabiltzeaz.

<sup>8</sup> Garrantzitsua da ideia honen jabe izatea, izan ere, euskara batuaren ahoskera zaindua erabiltzeko egokierak ez dagozkio jende guztiari etengabe. Gauzak horrela kokatuta, alegia formen erabilera esparru mugatua eta markatua aintzat hartzen denean, kritika zein desadostasun asko baretu egiten dira.

### 3. EBAZ arauak nola ulertu behar liratekeen

#### 3.1. EBAZ arauen helburu eta irizpide orokorrak

a) Euskara batuak hartutako bideari jarraiki, helburua ez da euskararen aldaera bat lehenestea besteak baztertzeko, ezta adituek asmatutako euskalkien gainetiko aldaera (aldiera supradialektal) artifizial bat proposatzea.

b) Nahiz estandartze prozesu orok dakarren aldaeren gutxieneko murriztea ukaezina izan, ahoskera estandarrak ez du aldakortasun geolinguistikoak sortutako aberastasun dialektala ordezkatu edo desagerrarazi behar. Helburua da euskarari erregistro formala eskatzen duten egoeretan baliabide funtzionalak eskaintzea. Nolabait esan, EBAZ Batuan idatzia (edo idatziko litzatekeena) ahoskatzeko da funtsean.

c) Ahoskera estandartzeko proposamenak hizkuntzaren batasuna du helburu: EBAZen zenbait arauk, hizkera desberdinen artean eta, batik bat, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artean gero eta handiagoa den haustura dialektala leuntzea dute xede nagusi eta (ahal balitz bidenabar) soziolinguistikoa.<sup>9</sup>

d) Estandarrak malgua behar du: batuaren aukera linguistikoak hizkerekin lotu nahi dira aldagarritasun ardatz estilistiko eta soziologikoak (ikus 2.4) emankor izan daitezen euskaraz. Ez da ahoskera bakar bat bilatzen, bateratu bat baizik, erreferentzia gune bakarrekoa.

e) EBAZek hiztun ooren *erreferentzia* izan behar du; hiztun batzuek erabiliko dute hizkera-maila jakin batzuetan bakarrik. Gainerako hiztun guztien ezagutza pasiboak bermatuko du aldaera zainduaren errealitatea eta sendotuko du hiztunengan euskalki desberdinekiko bateragarritasuna (lotura).

f) EBAZ arauen bertuterik handienetakoa da esplizituki agertzen dela estandarraren erabilera zaindurako direla arauok. Arauok hizkera batuaren ahoskera zaindua eskatzen duten egokieretara mugatzeak nahitaezko egiten du aldagarritasun estilistikoa eta geografikoa aintzat hartzea arauak azaltzeko orduan, ahoskera zaindua hizkuntzaren egitura osoan txertatuko bada. Aldagarritasun hori arauen adierazpenean agertzen diren iruzkin zenbaitek iradokitzen zuten. Batzuetan aldagarritasun dialektala islatzen da, hala nola III.1. mugatzen duen III.2. arauan, edo VIII.1. eta VIII.2. “j” letrari buruzkoetan. Hizkera-mailaren araberrako aldagarritasunak ere badu bere lekua, esaterako, II.a eta II.b arauetan.<sup>10</sup> Egia da aldagarritasuna ez dela berdin adierazten arau guztietan eta batzuetan ez dela ezer esaten alde horretatik. Ez da ulertu behar

---

<sup>9</sup> Nabarmen da mota honetakoa *j*-ren ahoskera palatala (*y* edo [j, j], palatal ez txetxekaria) artamendatzen duen VIII. araua. Gauza bera esan liteke *g*-ren ahoskera ahostuna gomendatzeaz.

<sup>10</sup> Ikus adierazpen osorako [http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) (= Euskaltzaindia, 1998).

haatik aukera bakarra ematen denik, baldin eta hizkuntzak berez aldaera gehiago eskaintzen baditu.<sup>11</sup>

g) Hiztunen muga fonemikoak aintzat hartzen dira, hizkera formala euskalkien benetako ezaugarri fonetikoaren begirunetik abiatzen dela aintzat hartuz. Horregatik, euskalkien ahoskeraren hesiak ez bortxatzea zaindu da: hau da, ez zaio inori fonemarik gehituko ez debekatuko EBAZen izenean: /h/ duenak badu, ez duenak ez du; berdin /y/ edo “ü” rekin, definizioz delako *fonema* berariaz egin daitekeen hotsa. Halere, onartu behar da gauzak ez direla erabat aseptiko, eta esandakoa inbentarioen arteko desberdintasun oso-oso zahar eta onartuei dagokiela: arauak hobesten dutela euskalki hedatueneren fonema aurkakotasunak egitea (funtsean txistukariak eta albokari bustia); gainera ez da onartzen /R/ (frantsesezko *Rome*), ezta /ʒ/ (gaztelaniazko *Zaragoza*) ere, nahiz horiek honezkero euskaradun askoren fonema inbentarioko unitateak izan, lehena Iparraldean, bigarrena Hegoaldean. Alegia oraindik bizirik dauden euskaren jatorrizko sistema fonetikoaren alde egiten da. Horrek esan nahi du “z” edo /s/-rik ez duenak, “ll” /ʎ/-rik ez duenak, “t” /c/-rik ez duenak, “rr”/r/-rik ez duenak ez duela /h/ ez duenaren tratua bera... Beste arrazoi batzuek medio, /ʒ/ txetxekari ahostuna ere lekuri gabe gelditzen da EBAZen (hedadura erlatiboki urrikoa delako /j, j/ren ondoan “j”letraren ordain gisa adibidez) ez bada frantsesetikako mailegutan (adib., *gara[ʒ]a*). Beraz, batzuetan hautua erabat da “politikoa”, alegia hizkeren arteko batasuna gainjartzen zaio irizpide fonologiko garbiari. Eransketa litzateke gomendagarri fonologiaren arabera hizkera zaindurako *-ia*-elkarketetan (*mendiya, mendixa, etab.*), baina euskalki desberdinetan eransketaren gauzatze fonetiko desberdinak gertatzen direnez eta, gainera, ez denez euskalki guztietan gertatzen, batasunaren izenean ez zen ahoskera hori gomendatu hizkera zaindurako.<sup>12</sup>

### 3.2. Estandarraren artifizialtasuna edo batasunak zenbat axola duen

Artifizialtasun kritiken aurrean gogoeta bat egin nahi genuke. Hautu linguistikoak (fonologikoak) badu osagai kulturala eta borondate politikoa, estandartzearen beraren inspirazio eta zio dena (1968koaren bidetik) eta arau banakoetan ere islatzen dena: euskalki eta hizkera desberdinen batasunaren auzia (ik. 3.1.c). Hiztun banakoaren neurri bateko edo besteko artifizialtasun sentipena saihetsezina da, besteren aukerak bere

---

<sup>11</sup> Arauen adierazmoldeen homogeneotasunik eza bere ibilbide akademikoaren historiatik dator funtsean (1993-94 Batzordetik 1997-98 Lantaldere eta hortik Euskara Batua Batzordera eta, azkenik Osokora). Sor litezkeen gaizki-ulertuak saihesteko Ahoskera lantaldearen errendapen txostena (Oñederra, 1998) EBAZ arauen osagarri gisa hartu behar litzateke. Egia da baina Euskaltzaindiak argitaratu zituen bezala argitaratu zituela eta egia da EBAZ arauak bakarrik direla erakunde osoarenak.

<sup>12</sup> Eransketak *fortitio*ak dira eta bilakabide fonologikoen tipologia funtzionalaren arabera, hizkera zaindua da *fortitio*en gertaleku naturalena (Donegan/Stampe, 1979, 141).

egitean. Ez dago gaizki ere: hori da estandarraren bereizgarri, definizioz hiztunaren etxekotik, arduragabetik desberdin izan behar baitu. Erabilera aktibo zein pasiboak eta denborak leundu egiten dute hizkera baten artifizialtasuna, azken batean arrotzetasuna ohiturarik ezak sortzen baitu.

Artifizialtasunari hesia jarri zitzaion erabakitzean arauen ondoriozko formak inorentzat nonbaiten litekeen ahoskera izatea. Besteak beste *-logia* termino askotako hitz-atalarekin sortzen da arazoa, Iparralde (/z/) vs. Hegoalde (/x/) zatiketaren aurrean. Kontuan hartu zen, batetik, zatiketa gaztelaniazko *-logía* (/x/) eta frantsesezko *-logie* (/z/) kanpoko aukeren arabera dela; bestetik eta garrantzitsuago dena, /x/ ez dagoela Iparraldeko hiztunen fonemen artean, ezta /z/ Hegoaldeko askorengan: alegia ez dute balio ez batak ez besteak ahoskera batzeko. Urrutixago (alemanez, esaterako) euskaradun guztiek duten /g/ etimologikoa bizirik badago, zergatik ez proposatu hori euskararen hizkera zaindurako? Kontua ez baita, ez behintzat funtsean, zer egin *logika* hitzarekin elkarrizketa batean edo Hegoalden *almeja* nola ahoskatu behar dugun, baizik *genoma* edo *semasiologia* lehen aldiz entzuten dituenak nola entzuten dituen. Ez baitaio arrotz gertatuko lehen aldi horietan irakasleek ahostunaz ebakitzen baditu.

### 3.3. Arau motak

EBAZ arauen artean lau mota bereiz daitezke aldagarritasunari ematen dioten aukeraren arabera. Gainera, arau bakar batek osagai desberdinak izan ditzake aldagarritasunari dagokionez. Horregatik arau bakarra sailkapen honen leku desberdinetan ager daiteke. Hemen aipamen laburrak egingo dira testua gehiegi ez luzatzeko. Ikus hemen sailkatzen diren arauen adierazpen osorako [www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) edo Euskaltzaindia (1998).<sup>13</sup>

a. Mota honetako arauak artamendatutako aukera edozein hizkera-mailatan da onena:

I, bost bokal nagusiei berez dagokiena; V, kontsonanteei dagokiena; V.2, gaztelaniatikako maileguetako *z*-ri dagokiona; V.4, frantsesetikako maileguetako *r*-ari dagokiona; IX.1, jatorrizko hitzetako *x*-ri dagokiona; X, *eginez gero* > *eginezker* bezalakoak biltzen dituena.

b.1. Beste arauotan ahoskera zaindurako artamendatutakoak gainerako hizkera mailatan ere erabil litezke:

IV, bokal-h-bokal bilkurei dagokiena; V.1, *ge* eta *gi* bilkurei dagokiena; V.2, *s-z* bereizkuntzari dagokiona; VII. *ll* edo *il* albokari egiteari dagokiona; VIII. “j” sabaikari ahoskatzeari dagokiona; X. *z* ondoko kontsonanteen ahoskerari

---

<sup>13</sup> Gogoratu 2.3.ean esana EBAZ hasierako "Atarikoak" ideien garrantziaz.

dagokiona; XI. *zz* kontsonante bilkurari dagokiona; XII. kontsonante ondoko *z* eta *s*-ri dagokiena.

b.2. Arauek ahoskera zaindurako artamendatutakoarekin batera, etxeko edo ikasitako euskalkiaren bestelako aukerak gogoratu edo irakatsi egin behar lirateke beste hizkera-mailetarako: <sup>14</sup>

II, bokal bilkurei dagokiena II.a eta II.b azpiatalek osatua; V.3, bokalar-tean mututu daitezkeen kontsonantei dagokiena; IX.2. maileguetako *x*-ri dagokiona.

c. Arauek ez dute aukera bakar bat lehenesten. Euskalkien araberako ahoskera desberdinak onartzen dira Batuaren maila zaindurako:<sup>15</sup>

I. arauak *ü* bokalari dagokion zatia; III, hiato (III.1.) eta diptongoei (II.2.) dagozkienak; VI. hasperenari dagokiona; VII, (des)palatalizazioari dagokiona; XII, hitz hasierako *z* kontsonante ondoan gertatzeari dagokiona; XIII, *ez* hitzaren ahoskerari dagokiona.

Euskalki barreneko aldagarritasun funtzionala (egiteko desberdinetarako ahoskera desberdina) *b* motako arauetan dago eta eta euskalkien artekoa, *c* motakoetan. Euskara irakastean ahoskera horrela azaldu behar litzateke (bereziki kalean euskara gutxi aurkituko duten ikasleekin). Azpimarratu nahi genuke halere arauak ez direla banaka irakatsi behar. Banaka analizatzea hizkuntzalari eta irakasleon zeregina da, baina ikasleei ez zaizkie erregela gramatikalak bezala irakatsi behar, arauak betetzen dituzten hitzak esaldi osoetan txertaturik baizik. Era berean, ez dugu uste bokal eta kontsonanteen ahoskera azentu eta doinuetatik aparte landu behar litzatekeenik. Euskal ikasleari ez zaizkio arauak irakatsi behar, arau horien arabera ahoskatzen baizik.

## 4. Prosodia

Prosodia kontsonante eta bokal ezaugarriekin batera ahoskatzen den beste hori da: azentu gorabeherak, doinu aldaketak, silabakatzea, lastertasuna, eta abar. Juan Goytisoloren hitzak itzuliaz, hitzen musika.<sup>16</sup> Dena delako, eta, besteak beste, ezin zenba daitekeelako bokalak eta kontsonanteak zenbat ditzakegun moduan, prosodia da hizkuntzalariarentzat hizketaren ezaugarri harrapagaitzena, deskribatzen eta sailkatzen zailena. Hortik estandarra arautzean ere bihurrien gertatzea eta irakasteko zailena, iheskorrena, kontrolagaitzena.

---

<sup>14</sup> Hauek noski b.1 dira bestelako aukerarik ez duenarentzat edo eman ez zaionarentzat. Atal honetakoek emango diote hizkuntz irakasleari lan handiena.

<sup>15</sup> Eremu geografiko zabalen desberdintasunekin gertatzen da hori: euskalki palatalizatzaile vs. despaltalizatzaileak, frantsesarekiko elebitasuna vs. gaztelaniarekikoa.

<sup>16</sup> Javier Valenzuelaren elkarrizketa, *Babelia* (2003.II.15). Mesedegarriago litzaiguke agian *kantaz* hitz egitea *musikaz* baino, bokal eta kontsonanteen (kantaren "letraren") ezaugarri zenbait ere prosodiari baitagozkio.

Oro har (ez euskaraz bakarrik) ahoskerari ez zaio hizkuntz eskoletan leku handirik egiten. Azterketetan ere hizkuntzaren beste osagaiei baino garrantzi txikiagoa ematen zaio, batere ematen bazaio. Hiztun berriei, ordea, ziurtasunik eza sortzen die eta hiztun ez-osotzat nabarmentzen ditu.

Dirudenez haurtzaroan bertan bermatzen da prosodiaren lehentasuna, lehen hitzetako hotsak ere egitura prosodikoetan txertatzen baitira. Donegan eta Stampe-ren (1979, 142) ustez, ahoskeraren eragile garrantzitsuena da. Izan ere, hizketaren alderdi prosodikoek neurri handi batean baldintzatzen dute bokal eta kontsonanteen ahoskera.

Esate baterako, ondoko kate segmentalak fonemikoki bera izanik, ahoskera ezberdinak sor litezke hitzak egitura prosodiko desberdinetan txertatuz: *etórri eztenàk* vs. *Etórri dirà, baña éz denák*. Funtsean, *ez* eta *denak* bakoitzak azentu nagusi bat izateak ematen dien beregaintasun prosodikoak kontsonanteen arteko asimilazioa ekiditen du. Era berean, *erakuts daiteke* esan edo *erakustaitেকে* esan estu dago lotua ahoskeraren ezaugarri prosodikoekin, funtsean hitz bilkura horren azentua bakarra izatearekin eta azentu horren indar erlatiboarekin (indar handiagoak silaben arteko gertutasuna areagotuz).

Oro har hizketa-jarioa ohargarritasun gorabeheraz osatuta dago: bokal-kontsonanteak, ozentasun gailur-ibarrak silabaka, azentua-azenturik eza, doinuaren igotze-jaisteak, etab.

In the phonological structuring of language, we find antagonistic structural principles at nearly all levels of analysis (consonant–vowel sequences, syllable structure, foot structure, etc.). They are paradigmatically the result of opposite tendencies, creating a dissimilate order with maximally alternating perceptual cues in the sequencing of elements. (Hurch, 2006, 720).

Kontraste egitura horien zehaztasunak hizkuntzak eta dialektoek desberdin antola ditzakete. Horregatik, uste dugu batuaren ahoskera euskalkiekin lotzean oso kontuan hartu behar dela alderdi prosodikoen eta ez-prosodikoen arteko banaezintasun hori.

#### 4.1. Egungo egoera


Prosodia da ziurrenik errazen itxuraldatzen dena, euskara zaharren bat etxetik dakiten hiztunek Batua erabiltzen dutenean, hotsetarako letra oinarri hartzearekin batera. Halaber, prosodia berri horretan egoten da maiz Batua lehen hizkuntz eredia izan dutenen ahoskeraren ezaugarri nabarmenena (bai euskara heldutako bigarren hizkuntza izan dutenena, bai halakoen eredia izan dutenena euskaraz jabetzean). Izan ere, horrela irakatsi izan da eta irakasten da hizkuntza, halakoa izan baita batuarekin lotu den ahoskera.

## 4.2. Prosodia berriaren ezaugarriak


Askok ozen arbuiatzen duten prosodia berri horren ezaugarri garrantzitsu batzuk ondokoak direla esango genuke:

- a. Azentuaren leku finkoa (azken aurrekorako joeraz)
- b. Hizka banatzea azentua
- c. Homogeneotasuna (ziurrenik Iparralde/Hegoalde isoglosarekin)

Hala uste izan badugu ere (Alberdi, 2014; Oñederra 1998b), arazoa ez da ziurrenik azken aurreko azentua, edo ez hori bakarrik behintzat: beheragoko adibideetako *hemén*, *lastér*, *maitasúnaren* hitzetan azentua, azken aurreko silaban egon gabe ere, desegoki gertatzen da. Euskararen ohiko prosodien aldaerazle garrantzitsuena azentua hizka kokatzea delakoan gaude: *hemén zegóen*; *igánde batéan*; *lastér egóngo gára*; *nire adiskideak*, *nire konplizeak*, *artístak díra*;<sup>17</sup> *maitasúnaren gáia*; *éskolaz kanpóko mundúak*; *erlójú guztiák aldátu bêár ditúgu* vs. *Erlóju guztiàk aldátu bêâr ditugù*. Alegia, azkenari erreparatuz:



Halakoetan hitz bakoitza kokatu da azentu nagusi baten pean, ez esaldi (*phrase*, sintagma) osoa euskarari legokiokeen bezala. Hizkuntza buru-azken eta komunztadura sistema konplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagmak azentu bakarraren azpian biltzea (Donegan & Stampe, 1996; Oñederra, 2015).



<sup>17</sup> Hizkako azentu hori zatikakoa izan daiteke eta hizketaldien amaiera aldera indartzen dela dirudi. Hemen txartzat ematen den ereduaren konponbidea ez da bakarra, esaterako: *artísták dírà*, *ártistak dírà*, etab.



Prosodia berriaren arazoak konpontzeko, berriz ere eskatuko dugu (1998an bezalaxe) azentuak esalditan eta ez hitzetan irakastea. Azentua ez denez hizketaren osagai segmentala, oker litzateke segmentuekin lotzea (zein bokal edo silabatan dagoen ohartaraztea zuzenean ikasleari). Horretaz gain, azentuaren banaketarako hizkuntzak erabiltzen duen unitatea ez bada hitza, hizka irakasteak ere ez dirudi egokien. Azenturik egokiena ere hitz zerrendetan irakasten bada, esaldien prosodia ez da egokia izango. Azken batean, azentuaren egiteko garrantzitsuenetako bat erritmoaren euskarri izatean datza, baina bai fonologi-fonetiketan oro har, bai euskararen azterketetan azentua berez eta bereiz aztertu izan da, erritmoa oso gutxitan azaldu delarik lan linguistikoetan.<sup>18</sup>

### 4.3. Proposatzen den eredu askotarikoa, euskalkiak

EBAZ arauetan bokalen eta kontsonanteen ahoskera bat baino gehiago sartzen diren bezala, prosodiak ere askotarikoa izan behar duela uste dugu.<sup>19</sup> Ederki asko dakigu honek zailtasun handiak dakartzala, lehenengoa, irakaskuntzaren aldetik formula bakar eta itxi bat ez izateak arauemaile eta hartzaileoi sortzen digun deserosotasuna. Baina iruditzen zaigu hala izan behar duela: oro har, zuberotarrak, hizkera zaindua erabiltzea egokitzen zaionean, prosodia zuberotarrean ahoskatu behar lituzke gramatika batu estandartuaren bidez egituratutako, hiztegiko aukerez osatutako eta kode formaleko fonema eta hots bilkuretan mamitutako esaldiak (jarri, *zuberotar*-en lekuan, *bizkaitar*, *goierritar*, *nafar*, etab.).

Proposamen honetan nolabaiteko kontraesana ikus lezake bakarren batek. Neurri batean behintzat konbentzioz kodetutako forma segmentala (EBAZ), ez datorrena beti eta guztiz bat euskalki bakoitzaren aukerekin, nahi dugu berezko prosodia askorekin bateratu, jakinda eta aitortuz prosodia dela aukera segmentalen eragile nagusia. Komeni zaigu ikustea kontraesanak non sortuko lirakeen, alegia EBAZen proposatutakotik zer ez den ondo kokatzen hizkeraren baten eredu prosodikoetan. Euskararen hitz azentuaren ahultasun, malgutasun eta esaldiaren menpekotasunagatik, gauza ezaguna da erraz dela edozein doinu kantatzea hitz berekin. Ez dirudi beraz, azentuak arazoak ekarriko lituzkeenik. Izatekotan, silaba kopuru desberdinak izan daitezke arazo. Hor leudeke, egotekotan, arazoak, garbi baitago *j* palatal ahoskatu beharrak ez duela arazo prosodikorik sortzen (ohiturarik ezak ekar dezakeen prosodiaren berregituratze orokorra ekiditen asmatzen bada behintzat). Arazo prosodiko posibleak, *a priori*:

---

<sup>18</sup> Honetan salbuespen dira Donegan eta Stamperen ikerketa sinkroniko eta diakroniko bide-erakitzaileak (Donegan & Stampe, 1978, 1996 eta tipologiazko guztiak).

<sup>19</sup> Ik., bestelako proposamen baterako, Hualde (2011).

- *Nahi* eta *zahar* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*nai* eta *zar*), bina silabatan (*na.i* edo *za.ar*) esan nahi baditu hizkera zainduaren izenean.
- *Burua* atzizkia ahoskatu gabe bi silabatan (*burú*) ahoskatzeko ohitura duenak, hiru silaba (*bu.ru.a*) erabili behar baditu hizkera zainduan;
- *Ari* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*ai*), bi silabatan eta bokal arteko kontsonanteaz (*ari*) esan behar badu hizkera zainduan.

Horiek dira bereziki zaindu, aztertu beharko ditugunak irakasle eta hizkuntzalarion esparrua hedatuz. Arazo hauei irtenbidea bilatzean, antzezleei, musikariei, kantariei eta kidekoei ireki behar zaizkie ateak.

Aurreko atalean azentuaren irakaskuntza eraginkorra izan dadin, esalditan, eta ez hitzak banaka hartuz, ikastea gomendatu da. Hemen, euskalki desberdinen ezaugarri prosodiko nagusiak gordetzeaz ari garela, irakaskera bera proposatzen dugu. Izan ere, tokietako prosodiak ikasteko askoz hobea da esaldiak «kantatzen» ikastea, hitzez hitz edo, are okerrago, morfemaz morfema, atzizkiz atzizki edo erro-atzizkika aritzea baino.

## 5. Proposatzen den eredua

Jakin badakigu alderdi teorikotik proposatzen denak, ezertarako balio izango badu, maila praktikoa, alderdi didaktikotik osatu behar dela nahitaez. *Osatze* hitza erabiltzen bada ere hemen, ez dugu atal hori bigarrenkarizat hartzen, araua bera bezain garrantzitsutzat baizik. Araua arrakastatsu izango bada, irakaskuntzak benetan eraginkor izan behar du; horrela bakarrik lor liteke, hizkera zainduaren estandartzearekin batera, hizkuntzaren ahozko erabilera maila guztiak behar bezala egituratzea.

### 5.1. Hizkera-konstelazioa

Dударik gabe eta definizioz, estandartze bilakabide batek (eta halakoa da EBAZ) ezinbestean ahultzen ditu euskalkien bereizgarriak, kode estandarrak prestigioa eta, beraz, eredugarritasuna hartzen dituen neurrian. Ahultze horri hesia jarri nahi izan zitzaien EBAZ arauetan gorago (2.4) aipatu aniztasun eta malgutasunaren bidez. Aukera desberdinak onartuz, gainera, ebakera zaindua hiztunentzat sinesgarriago, onargarriago, benetakoago, hurbilago gertatzea bilatzen zen, Milroyk (1994, 20) kontsentsu arau deitzen dituenen antzera. Azken batean, euskalkiak biziko badira, beharrezko da ez ahanzte eta, Batuak erregistroak izango baditu, euskalkiek bizi behar dute.


Alde horretatik, gogoan izan behar da EBAZ arauak artamendatutako guztiak euskalkiren batean edo bestean gertatzen diren ahoskerak direla. Aukera ezberdinen artean bat hautatzeko, irizpide fonologikoak eta, soziologikoak ere erabili ziren. Forma

zaindu bezala aukera bi eskaintzen dituzten arauetarako, kontuz neurtu zen zein euskalki bereizgarrik zuen aski eremu handia (*c* motako arauak, 3.3).

Oraingo erronka da zein hizkera mailatan eta nola berreskuratu gainerako euskalki-ezaugarriak, maila zainduenetatik kanpo gelditu zirenak. Ez da zeregin erraza. Izan ere hizkera mailen banaketa ez da sinplea. Ez daude bi maila banandu eta berezi. Zaindua eta arduragabea etenik gabeko *continuum* baten ertzak dira. Tartean, batetik besterainoko maila eta aldaerak, erlazio gradual ez-diskretuan daude, zenbatzen eta hesitzen gaitz (edo ezinezko) gertatzen diren mailetan. Hori aintzat hartzea oso garrantzitsua da ahoskera irakaskuntza praktikora eramateko orduan.

Dena den, zailtasun teorikoek ez dakarte nahitaez zailtasun handiagoa praktikan. Ahoskera Batzordeak, noski, teoritik eskaintzen ditu gogoetak. Horien garapena, haatik, irakaskuntzak eta erabilerak ekarri behar dute. Araugintzatik ezin da gehiago egin, ez litzateke egin behar. Arauek ezin dituzte bete aldagarritasun saihetsezinaren zuloak, ezta hizketa biziaren konplexutasuna erraztu. Bokal-kontsonanteen elkar moldaketak baldintza prosodikoen jarioari egokitzen zaizkio, hitz bakoitzak hiztunari dakarkion arreta mailari, egoera sozial edo subjektiboak ematen dion barne egoerari, eta abarri.

Arau-emaileak eta erabiltzaileak bidea elkarri begira egitean legoke gakoa, betiere hizkerek osatzen duten konstelazio osoa gogoan izanik. Hara hona nola irudikatzen dugun euskararen ahoskeren egitura osoa:



Gauza izan behar genuke bakoitzaren etxeko euskaratik erabilera zaindueneraino etengabeko *continuum* bat eraikitzeko. Hitzun banakoaren jatorriak baldintzatuko luke zein lerrotan dagoen eta lerroaren zein puntutan kokatzen den bere hasiera zein bukaera. Euskara bigarren hizkuntza duenaren lerroa ez da ziurrenik euskaldun zaharrarena bezain urruti iritsiko «etxekotasunean».

Beste muturrari gagozkiola, inoiz mikrofono aurreko hizketa egiten ez duenaren lerroa EBAZen biribilera iritsi gabe geldituko da ziurrenik. Esaterako, herrikoentzat emandako hitzaldi batek ez ditu, nahitaez, euskaldun guztientzako Lehendakariarenak bete behar lituzkeen adina ezaugarri hartu behar EBAZetik. Gaiaren, egokieraren, irakurri/ez-irakurri estiloaren, hiztunaren nolakotasunek zeresan handia dute lerroko kokalekuak finkatze honetan.

Betiere, EBAZ erreferentzia da, norabidea, etxekoagotik formalagora goazela. Alderantzizko norabidean, berriz, hizkera maila laxatu ahala, erreferentzia etxekoa izango da. *B* motako arauetan (3.3.) adierazten den aldagarritasuna lerro hauen mailakako dinamikan gauzatuko litzateke.

EBAZak bat baino gehiago izango dira noski, ezinezko baita ahoskera bakar beti berdin bat. Euskalkien koloreez gainera, ahozkoaren bestelako aldagarritasun eragile guztiak adierazten ditu plural horrek. Aldagarritasun hori ezinbestekoa da forma zaindua ere benetako hizkera izango bada.

Hizkuntza irakatsi eta erabiltzean ahalegin berezia egin behar genuke, euskalkien presentzia handiagoa edo txikiagoa hizketaren maila sozial edo estilistiko desberdinekin parekatzeko. Horretarako, aldagarritasunaren inguruko ideiak garbi izateaz gainera, aldagarritasun hori nola gauzatu eta irakatsi asmatu beharko da. Gorago esan bezala (2.2) euskararen historiagatik kaleak, leku batzuetan batez ere, ez du asko laguntzen.

Guk, orain apenas dauden aldaera horiek finkatu egin behar ditugu, lerroetan kokatzeko. Finkatzeak noski irristakor eta malgu izan behar du hiztuna continuum batean mugiarazi nahi bada. Baina, nola gizarteratu arau malgu bat? Ahoskera ez da ikasten aditz formak edo kasu atzizkiak bezala. Lan honen hasieran ere adierazi da zaila dela berez. Nola bateratu, gainera, estandar berri bat aldeztu aurretik zeuden hizkerekiko modu sistematiko eta zentzudun batean, batak bestea ordezkatu gabe erabat? Nola gorpuztu estandarren eta euskalkien arteko banaketa osagarria?

1996–1998 bitartean jardun zuen Ahoskera Lantaldearen ondorioetako bat izan zen ahoskeraren irakaskuntza gertuago dagoela kantatzen irakastetik, edo antzerki tekniketatik, gramatikatik edo hiztegitik baino (Oñederra 1998a). Hori gogoan hartuta bildu beharko dira alor desberdinetako profesionalen eskarmentu eta gogoak.

## **5.2. Jarrera osoak irakatsi**

Aipaturiko zailtasun guztien ondoan, bada gure aldeko zerbait, erraztasun bat: ahoskera gauza «naturala» da. Ez da, alegia, konbentzionala gramatika eta hiztegia konbentzional diren neurri eta zentzuan. Horien erregela eta formak buruz ikasi behar dira. Ahoskeraren estandartzeak behar bezala funtzionatzeko, ordea, aski da funtsean hiztunak ideia ulertzea, gakoa harrapatzea. Horretarako jakinaren gaineko arauak indar handiegia ematen dienari (arauemaileoi, irakasleei, ikasleei) hiztun arruntaren askatasuna berreskuratzen utzi behar zaio, horretarako baimena eman.

Egoera zainduetarako erreferentzia da nahita eta buruz ikasi behar litzatekeen bakarra. Hortik abiatuta eta hori beste askoren arteko maila bat dela aintzat hartuta, gainerakoak egoeraren arabera gorputza laxatzearekin letozke. Ahoskera gorputz kontua da neurri handi batean; gure gogo linguistikoa, gramatikalki antolatu eta lexikoki bete, gure belarriek entzun eta ahoak ebaki ditzakeen uhin bihurtzea, hori da ahoskatzea.

Garbi dago, noski, buruz ikasi beharreko erreferentzia abstraktu hori ere, erabili behar duenak benetako ahoskera gisa bereganatu behar duela, gainerako hiztunekin eta gainerako hizkerekin gutxieneko zilbor-hestea gorde nahi bada. Iruditzen zaigu, hori egiteko, letrak oinarri eta unitate nagusitzat ez hartzeaz gogoratu behar genukeela, eta esaldien doinua ez galtzeaz.<sup>20</sup> Horregatik proposatu dugu goragoko ataletan esaldiak baliatzea ahoskeraren irakaskuntzan.

Konpondu nahi diren arazoen datuak ikusita eta aipatutako irizpide teorikoak aintzat hartuta, ahoskera esaldika eta esalditan irakastearen alde gaude: hori litzateke gure aldarri garbia. *Ez dakit* [estakit] ahoskatzen arauz ikas daiteke eta buruz gogoratu, baina horrek bakarrik ez du ahoskatzen irakasten. Horrela hitz eta morfemen formak ikasten dira. Haatik, hitz egiterakoan, hiztun jatorrak ez ditu doinu eta azentuak hitz edo morfema kateetan jartzen, alderantziz, esaldiak txertatzen ditu azentuz eta doinuz osaturiko eredu erritmikoetan. Beraz, eragiketa bakarrean, bide batez, irakatsiko litzateke esaldi-doinua (*intonazioa*). Esaldietan erabilia ikasi behar lirateke, ezaugarri prosodikoekin batera, bokal-kontsonanteei dagozkien EBAZ arauak, ez banaka, adibide zerrenda gehituaz arau bakoitzaren formulazioari.

Arauen betetze neurriaren eta aukera desberdinen bidez bereiziko lirateke maila estilistiko desberdinetako testu irakurriak (esaterako, saiakera zati bat eta elkarrizketa arin bat), irakurria eta buruz ikasitakoa, buruz ikasitakoa eta hizkera librea, etab. Zenbat eta gehiago urrutiratu erabilera maila formalenetatik gutxiago bete behar lirateke EBAZ arauak, gradualki txertatuz tokian tokiko ahoskera hautuak. Zenbat eta arau gehiago estuago bete, gertuago ahoskera zaindutik.

*Naturala* delako, berezko du, eredu berritik abiatuta, ostera aldaerak sortzea. Batzuetan aldaera horiek izango dira lehendik dagoen formaren azalratzea berriaren ondoan: esate baterako, *filologia* esatean [y] ahostuna eta [x] ahoskabea biak agertzea hiztun beraren hizketan. Halakoek arauzale estuegiak izutzen badituzte ere, ezinbesteko dira hizketa bizian eta hizketa bizirik gabeko hizkuntzarik ez dago. Euskararen bizitzaren aro hau egokitu zaigu, hizkuntzaren beste aro egonkorrago baterako aitzinsolasa izango ahal da gure eztabaida.

---

<sup>20</sup> EBAZ arauen alde onenetakoa malgutasuna den bezala (ik. 2.2.f), txarrenetakoa da azalpena Batuaeren letra banakoetan oinarritu izana. Horrek hizkuntzaren fonologiari dagozkion erregularitasunen adierazpena errazten badu ere, idatzia ahozkoaren ondoko dela ulertzea zailtzen du.

## BIBLIOGRAFIA

Alberdi, A., 2014, *Ahoskera*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amorrortu, E., 2012, «Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak», in *Marcos interpretativos de la realidad social contemporánea / Egungo gizarte errealitatea interpretatzeko bideak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 43-56.

Auer, P., 2005, «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», in N. Delbecq, J. Van der Auwera & D. Geeraerts (arg.) *Perspectives on Variation. Sociolinguistic, Historical, Comparative*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 7-42.

Auer, P. & H. Spiekerman, 2011, «Demotisation of the standard variety or destandardisation? The changing status of German in late modernity (with special reference to south-western Germany)», in T. Kristiansen & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a Changing Europe*, 161-176.

Bereziartua, G., 2014, «Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo», Doktoretza-tesia, UPV/EHU.

Camino, I., 2005, «Euskal Soziolinguistikaren atarian», in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia, IKER-17*, Bilbo: Euskaltzaindia, 157-187.

Donegan, P. & D. Stampe, 1978, «The syllable in phonological and prosodic structure», in A. Bell / J. B. Hooper (arg.), *Syllables and Segments*, North Holland, 25-34.

Donegan, P. & D. Stampe, 1996, «Rhythm in Holistic Typology», *Workshop on Typology and Naturalness* mintegian aurkeztutako hitzaldia, SLEren 24. Biltzarrean aurkeztua, Klagenfurt, 1996.IX.5.

Elordui, A., argitaratzeko, «Elebakartasunetik heteroglosiara: *Gaztea*, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan», *Uztaro* 2016.

Elordui A. & I. Zabala, 2009, «Euskara Batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz», in R. Etxepare, R. Gómez & J. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre, ASJU* 43 (2009) 231-246.

Euskaltzaindia, 1968, «Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria», *Euskera* 13 (1968) 250.

Euskaltzaindia, 1998, «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera*, 43 (1998) 485-490 ([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf)).

Euskaltzaindia, 2004, «Adierazpena, euskalkien erabileraz», *Euskera* 49 (2004) 426-429 ([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0137.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf)).

Eusko Jaurlaritza, 2013. *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gaminde, I., G. Aurrekoetxea, A. Etxebarria, U. Garay, A. Romero, 2014, *Ahoskera Lantzeko Argibideak eta Jarduerak. Laguntzarako materiala: Teoria eta Praktika*, Bilbo: UPV/EHU.

Giddens, A., 1991, *Modernity and self-identity. Self and Society in the Later Modern Age*, Cambridge: Polity.

Giles, H., J. Coupland, N. Coupland, 1991, *Contexts of Accommodation*. New York : Cambridge University Press.

Grondelaers, S. & R. van Hout, D. Speelman, 2011, «A perceptual typology of standard language situations in the Low Countries», in T. Kristiansen, & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*.

Hualde, J. I., 2011, «Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: Zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako», in G. Aurrekoetxea & I. Gaminde (arg.), *Prosodiaz eta hezkuntzaz I. jardunaldiak*, Bilbo: UPV/EHU, 11-27.

Hurch, B., 2006, «Dissimilation», in K. Brown (arg.), *Encyclopedia of Language & Linguistics*, Philadelphia: Elsevier, 719-722.

Kristiansen, T., 2009, «The macro-social meanings of late-modern Danish accents», *Acta Linguistica Hafniensia* 41 (2009) 167-192.

Kristiansen, T & N. Coupland (arg.), 2011, *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*, Oslo: Novus Press.

Lantto, H., 2015, *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*, Doktoretza-tesia, Helsinkiko Unibertsitatea, Helsinki.

Milroy, J., 1994, «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in D. Stein & I. Tieken-Boon van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600–1800*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

Milroy, J & L. Milroy, 2012 [1985], *Authority in Language: Investigating Standard English*, Londres: Routledge.

Oñederra, M. L., 1994a, «Ahoskera araupetzeaz», *Euskera* 39 (1994) 1523–1526, 1589-1605.

Oñederra, M. L., 1994b, «Abiaburu zehatz batzuk», *Euskera* 39 (1994) 1533-1542.

Oñederra, M. L., 1998a, «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena», *Euskera* 43 (1998) 265-274.

Oñederra, M. L., 1998b, «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera* 43 (1998) 439-449.

Oñederra, M. L., 2015, «Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan», in M-J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 491-499.

Rindal, U., 2014, «Perceptions of Norwegian accented English among teachers», *SLERen* 47. Biltzarrean aurkeztua, Poznań 2014.IX.11.

Tieken-Boon van Ostade, I. 2012, «The codification of English in England», in Raymond Hickey (arg.), *Standards of English. Codified Varieties around the World*, Cambridge: Cambridge University Press, 34-54.

Van Hout, R., 2014, «Planning Dutch in the Netherlands and Flanders: destandardisation, regional languages, multilingualism», *Language Planning. Theory and practice in dialog* mintegian aurkeztua, Center for Multilingualism in Society across the Lifespan, Osloko Unibertsitatea, 2014.X.13.

Soziolinguistika klusterra, 2012, *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa*. Andoain: Soziolinguistika klusterra.

Zuazo, K., 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Irun: Alberdania.

Zuazo, K., 2005, *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkar.